

...eta

Kitto!

838 zkia.
2013-III-1

udal-AURREKONTUA
28.893.309,84 €

5
urtetan

%25
gutxiago



ESPEZIALISTAK BEGIEN OSASUNEAN

Ba al zenekien ikusmenaren azterketa lagungarria izango zaizula, **glaukoma**, **begi-lausoak** eta **begietako nekea** diagnostikatzeke?

Multiópticas-en begien azterketa egingo dizugu, konpromezurik gabe.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

EUSKADI CUBA

ELKARTEAREN ESKUTIK

HIZLARIAK: *Salvador González & Lazaro Oramas*

Kuba eta Venezuelak:



KONTATZEN EZ DIZUTENA



ILLUNABARRIAN programa - KORRIKA KULTURALA

martxoaren

7an

EGUENA

Portaleko

Areto Nagusian

BISTA EDER, 10

arratsaldeko

19.00etan

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



ASTEAN ESANAK

"Frontoietan gaur egun gorputz oso ederrak ikusten dira, pasarelakoak, baina jokoan ordubetetik gora iraunez gero, bolak igotzen zaizkie denei. Guk jokatzen genuen materialarekin, airez sartuta, pilota lurrera erori seguru"

(MIGUEL GALLASTEGI, PILOTARI-OHIA)

"Askok uste dute, euskaldunak aske badira, espainiarrak aske izateari lagako diotela: askatasuna ematea jabetza galtzarekin nahasten dute. Euskaldunak nahi dutena erabakitzen badute, espainiarrak libreago izango dira"

(JOSEBA SARRIONANDIA, IDAZLEA)

"Adolfo Suárez presidentek kimika nuklearra euskaraz lantzea ezinezkoa zela esan zuenean, kimikaz eta euskaraz jakitea nahikoa zela erantzun nion nik. Denborarekin ikasi dut borondatea ere beharrezkoa dela"

(JOSE RAMON ETXEBARRIA, IRAKASLEA)

"Jendeak komunitate kontzeptu gisa hartzen du euskara: denok jatorrak eta txintxoak gara, denok bat. Nola arituko gara elkarren kontra? Ezin dugu! Zer egin? Elkarri arrazoia eman. Hori heriotza modu bat da, interes guztia galtzen du-eta"

(IÑAKI SEGUROLA, IDAZLEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

JAN BARRI.- Denbora gutxi lehenago janda, sabela beteta. "Jan barri nago eta ezerk ez desta gogorik emoten".

JAN ZAHARRIAN.- Orduak jan barik, jan eta digestioa amaitzean, gutxi gora-behera. digestioa egindakoa. Ez du esan nahi baraurik. "Jan zaharrian da denporatxo bat pasau eta gero; jan, bazkaldu eta handik ordu bira ero gehixao. Baiña 'jan zaharrian' eta 'baraurik' ez dira igualak".

eskutitzak

- KAIXOO FRUTAK!!! -

Denbora asko pasatu da lehenengo bidar Gaztetxian bildu giñanetik; urduri geunden, baiña gure irrifarrak eta begixen disdirak, poza, ilusiñua eta gogua adierazten zebeñ. Holan hasi giñan Gazte Antolakunde barrixaren inguruan eztabaidatzen eta prozesu guzti horri formia emoten.

Egin dogun bidia luzia izan da, eta bide hori eraikitzen gauza asko elkartrukatu eta ikasi dittugu. Norbanakotik hasitta kolektibo-

ra: baktotxak ahal eta bihar zebana aportatzen, emoten eta jasotzen. Hasierian luzia eta gogorra emoten zeban bide hori kolorez, umorez eta irrifarrez apaindu dogu, pixkanaka-pixkanaka, txikitasunetik handittasunera, Gazte Antolakundia sortu arte.

Baiña Gazte Antolakunde barri horrek aurkezpena merezi dau, mundu guztiak ikusi bihar dau ilusiñoz eta gogoz guztion artian egin dogun bidia eta, horregai-

ttik, **martxuaren 2xan Lizarran burutuko dan Kongresura gonbidatzen zaittuegu.** Bertan Gazte Antolakundiaren Aurkezpen-ekitaldixa burutuko da: goizeko 10.30xetatik eguerdiko 13:00era.

Autobusian (09.15etan Ego-Gainen) apuntatzeko listak Deporren eta Karrikan dagoz. Animo, gaztiak! Guztion artian sortu dogu-eta Gazte Antolakundia. Animatu eta gozatu!

EIBARKO GAZTE ZUKUA



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILERA: ...eta kittedo! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kittedo! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
("...eta kittedo!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

Eibarko diseñadora bi modelokin.



Etxeberriaren bilduma arrakastatsua

Roberto López Etxeberria diseñatzaile eibartarrak aurreko eguenian erakutsi zittuan bere bilduma barrixa osatzen daberen jantzixak, Mercedes-Benz Fashion Week Madrid moda topaketan. Aurten, gaiñera, sail ofizialeko diseñatzailliekin batera jardungo dau eibartarrak, aurreko ediziñuetan gaztiendako saillian arrakasta haundixa lortu eta gero. "París Berlín Moscú" izenekua batez be gizonetzkuendako berokixak osatzen dabe eta oso harrera ona euki eban aurreko astian, pasarela gaiñian erakutsi eta gero idatzi eta esandakuak ikusitta



LAB-ekuen alkarretartzia

Eguaztenian LAB sindikatuko Debabarreneko ordezkariak billeria egiñ eben hainbat gairen gaiñian jarduteko. Bestiak beste, aztertu zittuenen artian metalaren hitzarmenaren egoeria eta horren inguruko mobilizaziñuak, Martxuan 9xan Bilborako deittuta dagan

mobilizaziñua, Emakume Bihargiñen Naziñoarteko egunaren ingurukuak... Billeria amaittuta, ordezkari batzuk propagandia banatzera eta pankartak ipintzera jua ziran eta beste batzuk alkarretartzia egin zeben, Untzagan, Gipuzkoako metalaren hitzarmenaren alde.

Felix Bergara Azittaingo parrokoa hil da

1968az geroztik Azittaingo Andra Mari elizako parrokoa izan dan Felix Bergara Zurutuza aurreko asteko barixakuan hil zan, 82 urterekin, luzaruan gaixorik egon eta gero. Eibarren 1930eko uztaillaren 10ian jaixo zan eta oso gazte zala sentidu eban Jainkuaren deixari erantzuteko premiñia; 1954an seminari-xora jua zan, apaiz ikasketak egittera. Zortzi

urte geruago, 1962xan Jaime Font y Andreu gotzaiñak apaizgintza sakramentua emon zetsan. Gero, Madrillera jua eta lau urte egin zittuan Gizarte Zientziak ikasten, Leon XIII. Institutuan. Ikasketak 1966an amaitsu eta Eibarrera bueltau zan.

Abade izendatu ebela 50 urte bete



Felixek urrezko ezteiak bete zittuan iaz Azittaiñen.

ziran iaz eta, hori dala eta, Donostiko Elizbarrutiak Urrezko Ezteiak ospatzeko ekitaldixan omendu eban Felix Bergara 2012ko maiatzian, bere moduan Urrezko Ezteiak ospatu zittuen Elizbarrutiko beste 19 abaderekin batera, Jose Ignazio Munilla gotzaiñak zuzendutako mezan.

Jose Luis Akarregi aktore

Saso batian KTB-ko aurkezlia zan Jose Luis Akarregi atzera be telebistan ikusteko aukeria dakagu, Euskaltel konpaiñiak ONA produktua ezagutzera emoteko egin daberen iragarkixetako batian. Kanpaiñak hainbat iragarki dakaz, tartian eibartarra figurante agertzen dana, eta telebista, mobilla edo internet erabiltzian egin geinkiazan gauza barregarriak aurkezten dittue personajiak. Sare sozialetan 14 urte zittuaneko erretratua ipintzen daberen gizonaren personajia da Akarregi.



Kontratuak egitteko diru-laguntza

Udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza sailak, Lanbiderekin alkarlanian, herriko denda eta ostalaritza alorreko negozio txikixetan bihargiñak kontratatzen ditudenendako diru-laguntzak emongo ditu, beti be baldintza batzuk betetzen balditue. Danera 50.000 euro (%85 Lanbideki ipiñiko dau) erabiliko ditudue diru-laguntzetarako (23.090 euro merkataritzan eta 26.938 euro ostalaritzan) eta kontratu bakoetxeko gehixen jota 3.848 euroko diru-laguntza jasotzeko aukeria egongo da.

Laguntza jasotzeko kontratuak gaur (2013ko martxuak 1) eta apirillaren 1a bitartian egindakuak izan biharko dira eta gi-txienez sei hillebeterako iraupena eukiko dabe eta egun osoko lanaldikuak izango di-



ra. Kontratautakuak Eibarko erroldan izenemonda egon bihar dira 2012ko urtarrillaren 1 az geroztik eta diru-laguntza eskatzeko derrigorrezkua izango da Lanbiden aurkeztutako lan-eskintza egiaztatzia. Eskaerak martxuaren 25era arte egin leikez, Pegoran. Informaziño gehixagorako be bertara jo leike edo, bestela, www.eibar.net helbidian sartuta bete-biharreko baldintzak eskuratzeko aukeria dago.

Urteko batzarra hillaren 14an

...eta kitto! Euskara Elkarteak martxuaren 14an egingo dau Urteko Batzar Nagusixa bere egoitzan (Urkizu, 11 solairuar-tean), 19.00etan lehelengo deialdixan eta, bazkiden erdixa or-



durako ez bada agertzen, 19.30xetan bigarren deialdixan. Gai-zerrenda hónetxek osatzen dabe: 2012ko gestio-balantzea, Tokikom eta Federaziñuaren kongresuari buruzko hausnarke-tia, 2013rako egitasmuak, bazkide kuotak eta aurrekontuak, galdera-erantzunak eta iradokizunak, zuzendaritza barrixaren hautaketia eta fun-zionamendua eta piskolabisa.

autuan

HITZALDIXA

Martxuaren 5erako hitzaldixa antolatu dabe Egoaziakuak, Lacasiun alkartiaren parte-hartziarekin: 19.00etatik aurrera hitzaldixa emongo dau Irantzu Varela genero bardintasanian adituak, "Hegoaldeko andrazkuen ahotsa: Hegoaldeko andren parte-hartzia politikan" izenburuari jarraituta.

MERKADILLUA ERREBALERA

Asteleheneko udalbatzak aurrerantzian merkadillua Errebalen egittia onartu dau. Saltzailliekin ados ipiñi ziran hainbat billera eta gero eta Errebalen Eibarko Txikiton eta Untzagan baiño erosuago egongo dirala pentsatzen dabe: hortik aldaketia.

SANJUANETAKO POSTUAK

Zerbitzu sailletik aditzera emon dabenez, San Juan jaixetan posturen bat ipiñi nahi dabenak apirillaren 30era arte eukiko dau eskaeriak Pegoran presentatzeko aukeria, eskatzen ditudien beste agirixekin batera, 08.30xetatik 14.30xetara eta 15.30xetatik 19.00xetara.

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

- | | |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia | 10 Barne Medikuntza |
| 2 Zirugia | 11 Radiologia |
| 3 Dermatologia | 12 Urologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 13 Traumatologia |
| 5 Anlisi Klinikoak | 14 Koloproktologia |
| 6 Ortodontzia | 15 Erizaintza |
| 7 Otorrinolaringologia | 16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria | 17 Foto-depilazio Unitatea |
| 9 Psikiatria | |

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko traslagoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

asteko
148.000
datua

euroko dotazifua prestatu dau Udalak tasetatik exento geratzen diran famelixeri laguntzeko. Krisixaren eragiñez, partida hori lau aldiz haundixagua egin da. 2012ko exenzifuetara 700 famelixa apuntau ziran.

Naroa Ariznabarreta ez zan epaiketara aurkeztu

2007an Jarrai-Haika-Segi auzixa salatzeo A-8 autobidia moztu eben bost gazte, tartian Naroa Ariznabarreta eibartarra aurreko eguenian Donostian epaitzekuak ziran, baiña gaztiak ez ziran epaiketara aurkeztu eta, horren ordez, epaitegixaren atarixan komunikaua irakorri eben autuaren gaiñeko eritzixa emoteko. Euren berbetan, "gaurkuan be desobedientzia zibillaren aldeko aukeria egin dogu, iñolako epaitegik euskal gazterixia epaitu eta zigortzeo zillegitasunik ez dakalako. Horregaittik epaiketa honen aurrian be planto egitten dogu. 2007xan egindakuaren lez, gure esku di-



ttugun tresnak baliatuta, eguneroko biharra- rekin herrixan, auzuan, lantegixan... Euskal Herrixa eraikitzen segiduko dogu. Iñork eta ezerk ez gaittu geldittuko. Eskubide zibil eta politikuen alde borrokan segiduko dogu".



Armerixako Ikasle Ohien batzarra

Armerixa Eskolako Ikasle Ohiak urteko batzarra martxuaren 16xan egingo dabe eta bestiak beste mendeurrenaren gaiñeko bideua eta liburuua presentauko dittue. Juan Carlos Cubeirok hitzaldixa emotia be dago aurreikusitta. Jardunaldixa 10.00etan hasiko da eta goizerako hainbat ekitaldi antolatuta dagoz: hitzaldixekin batera, argazkilaritza lehiaketako sarixak banatuko dittue eta bazkarixa 13.15etan hasiko da Arra-

te Hotelian. Bazkalostian diploma eta oroigarrixak banatuko detsez 1963ko eta 1988ko promozifuetakeri. Menuak 40 euro balixo dau eta juan nahi dabenak martxuaren 11rako izena emon biharko dabe, Kutxako 2101 0035 14 0000045260 kontu korrontian dirua sartuta. Informaziño gehixagorako 943203146 telefono zenbakira deittu edo aaa@armeriaeskola.com helbidera idatzi leike.

Herriko ekonomixia eta armagintza

Martxuaren 8xan, 19.00etan, Igor Goñi ekonomistak hitzaldixa emongo dau Portalean Berreibar arkitektura proiektuaren barruan: "Eibarko historia ekonomikua eta armagintza" izenburuari jarraituta. Berreibar eta M-Etxea kolektibuak erabili bariko Eibarko eraikiñ industrialeri beste erabillera batzuk zelan emon aztertzeo prozesu parte-hartzaillia dake mar-

txan eta, horren harira, aurretik be beste hitzaldi batzuk emon dittue. Bertara sartzia libre eta duan izango da.




JESUS BUSTINDUY HERNANDO
(1. urteurrena: 2012-II-29)

"ZURE irribarrea eta samurtasuna betirako izango dira GURE BIHOTZETAN" -ZURE FAMILIAK-

**BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA DOMEKAN (MARTXOAK 3)
EGUERDIKO 12.00etan, SAN ANDRES ELIZAN.**





SALVADOR GONZÁLEZ (Euskadi-Kuba Elkarte)

"Gobernatzeko beste modu batzuk badaudela jakitea ez zaie komeni batzuei"

Korrika Kulturalaren eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen "Illunabarian" programaren barruan, datorren asteko eguenean "Kuba eta Venezuela: kontatzen ez dizutena" hitzaldia izango da Portalean. Euskadi-Kuba elkartearen Salvador González eta Lázaro Oramas-en azalpenei esker, herrialde biei buruz ailegatzen zaizkigun albisteak zeinen interesen arabera ematen dizkiguten hobeto ulertzeko gakoak izango ditugu eta, beraz, euren errealitatea hobeto ulertzeko moduan izango gara.

- Hitzaldiaren izenburua "Kuba eta Venezuela: kontatzen ez dizutena" da. Zer da, ba, kontatzen ez diguten hori?

Hego Amerikan, prozesu baten ondorioz, Kuba eta Venezuela geziaren punta modukoak bihurtu dira, baina komunikabide handiek ematen duten informazioan beti oso kritiko agertzen dira hango gobernatzeko moduekin. Badago gobernatzeko beste modu bat, baina badirudi hori jakitea ez zaiela komeni. Horregatik, hitzaldian gobernatzeko zein modu dauden argitzen ahaleginduko gara.

- Zergatik diete horrelako beldurra gobernatzeko beste modu horiei?

Hasteko, yanki-ei ez zaielako komeni. Konfederazioa zuten eta Latinamerika errendako atzeko patioa modukoa izan da. Baina aipatutako adibideek gobernatzeko modu horizontalagoa badagoela agerian laga dute.

- Nolakoak dira agintzeko modu horiek?

Venezuelan boterea behetik gora antolatu dute, batzorde komunalak eratu dituzte. Herritarrek bertan euren premiak zeintzuk diren esaten dute eta gobernua horiek finantzatzeko moduak, baliabide-

ak ematen dizkie. Finantza-errekurtsoak kudeatzeko banku komunala eta guzti sortu dute. Demokrazia modu ezberdinak daude: parte-hartzailea, ordezkatzailea eta zuzena, hau da, herritarrek zuzenean erabakiak hartzen dutena. Eta azken hori da herrialde horietan dagoena. Beste adibide bat ipintzearen: Kuban erreforma gobernutik behera etorri da orain dela gutxi, eta 12 milioi biztanletik 9 milioi biztanlek hartu du parte prozesuan.

- Nahiz eta alde negatiboak azpimarratzen ahalegintzen diren, argi dago hainbat kontutan beste toki askotan baino aurreratuago daudela, ezta?

Kuba oso nazio txikia da, baina boteretsuei beldur handia ematen dien solidaritatea eragiten du. Medikuntzan minbizia-aren kontrako lau txerto garatu dituzte eta Amerikako Estatu Batuetan Kuban baino ume gehiago hiltzen da.

- Zergatik dago horrelako harreman sendoa Euskal Herria eta Kubaren artean?

Euskadi-Kuba elkarteak badaramatza hainbat urte martxan, ni neu bertara gerturatu nintzela hiruzpalau urte izan arren. Elkarteak hasieran ez zuen proiekturik ga-

ratzen, batez ere elkartasun politikoa adierazteko elkarte zen, baina azken urteotan nekazal inguru batzuetan kooperatibak sortzen joateko proiektuetan beharrezkoak dihardugu. Beharbada, moduren batean antzerako izaera daukagu kubatarrek eta euskaldunek. Eta hizkuntzak ere garrantzia dauka: nahiz eta gure hizkuntza euskera izan, gaztelaraz ondo moldatzen gara eta hori abantaila da, elkar ulertzeko arazorik ez dago eta.

- Zer daukagu euskaldunek kubatar edo venezuelarrendantik ikasteko?

Zabalagoak izaten, batez ere pentsakerari dagokionean. Adibidez, bertara joaten garenean eurek jainkoari buruz berba egiten dute sarritan eta guk, hemengo heziketa eta adibidearen eraginez, ba bestela ikusten dugu jainkoaren irudi hori. Baina iraultzaileek askotan jarduten dute jainkoaz berbetan eta guk lortu ez dugun batasun zabalagoa lortu dute. Ez bakarrik Kuban edo Venezuelan, baita Ekuador, Bolivia eta beste toki batzuetan ere. Mugimendu anitzekin denak elkartu eta mugimendu bateratua aurrera eramaten ikasi beharko genuke.


FELIX BERGARA ZURUTUZA

(2013-II-22AN HIL ZEN, 82 URTEREKIN)



Mila esker guztioi Felixi bere hiletan zuen berotasuna emateagatik

Bere idazkaria M^o Carmen Fdez. Membroa, senideak, jasokundeak eliztarrek eta Eibarko lagun guztien partetik.



PSE-EE eta PP-ren botuekin onartu da AURREKONTUA

Martitzenian onartu eban Udaltzako 2013rako aurrekontua, aldeko 11 boto (PSE-ren bederatzia eta PP-ren bi) eta kontrako 10 botorekin (Bildu-ren sei eta EAJ-ren lau). Azken urtiotako aurrekonturik txikiena izango dau aurten Udalak: 28.893.309 euro guztira. Inbersiñuetarako 2'8 millioi aurreikusitak ditue. EAJ alderdik osotasunari zuzenketa aurkeztu zetsan eta ez eban zuzenketa partzialik egin nahi izan "aurretik egindakua ez dittelako oindio bete". Bilduk, osoko zuzenketa batera, beste 11 zuzenketa egin zetsazen aurrekontu proposamenari eta hórretatik bakarra onartu zetsen, zirriborruan bertan jasota. PP, barriz, hauteskundiaren ondoren egiñ eban egonkortasun hitzarmena beteta, ados agertu zan aurkeztutako proposamenarekin. Zuzenketa defentsaren inguruko debatiak plenua ohikua baiño luziagoa, hiru bat ordukua, izatia eragin dau.

Biribiltzen ipiñitta, 2012-xan baiño bi millioi euro gitxiago, 2011n baiño lau millioi euro gitxiago eta 2010ian baiño sei millioi euro gitxiago, beheranzko joerari jarraitu detsa prespuetuek honezkero danori eragiten

deskun krisixaren ondorioz. Beheranzko joerak islada zuzen-zuzena daka inbersiño ahalmenian: 2.744.424 euro izango ditte Udalak obra eta holakuetan gastatzeko. Hórren artian inportantienak Jazinto Olabe eta Karmen kaleko par-



Inbersiño haundiñak J. Olabe eta Karmeneko parkiak hartuko ditte.



PSE eta PP alderdik emondako 11 botuak nahikua izan dira.

ke bixak barrizatzeko biharrak izango dira. Amaña ikastetxian psikomotrizidade gela sortziak eta San Andres ikastetxiaren jolastokixaren zati bat tapatziak biribilduko leukie gastuaren zatirik haundiña. Udalararen zorpetze-tasa %3'98 ingurukua izatiak holako inbersiñuak posible izatia egitten dabela azpimarratu eban Miguel de los Toyos alkatiak. Bestela, "Diputaziñotik Eibarri egin leixon bazterketiarekin" kezkatuta azaldu zan Arcadio Benítez sozialista.

Iñaki Zuloaga EAJ-ko ordezarixak bere alderdik osotasunari zuzenketa bakarrik egitteko arrazoiak azaltzen ekin zetsan bere interbenziñuari: "2011ko hauteskundiaren ostian PSOE eta PP-k egindako hitzarmenetik kanpora geratzia

erabagi genduan, alderdi sozialistak planteatzen daben hiri-erduarekin bat ez dogulako egitten. Gure diskursua beti sektore ekonomikuen garapenera, bereziki Errebalen garapenera bideratu izan dogu, baiña guk proposatutako lau proposamenetatik bakarra aurrera etartzeko borondaderik ez dogu ikusten eta, hortik, ez dogula oinguan zuzenketa partzialik aurkeztuko, aurretik presentau genduzenak bete barik segitzen dabela ikusitta alperrik gabiz-eta".

Horrekin batera, sozialistek "aurrekontuak aurrera etartzeko EAJ-ren premiñarik ez izatia" aurpegira bota zetsen, baiña horren aurrian Toyosek "danak biharrezkotzat jotzen dittelua" argittu nahi izan zetsan.



ROBERTO BILBAO EIZAGIRRE

(I. urteurrena: 2012-II-29)

Gure argirik haundixena eraman dabe, zerua ez amatatzeko.

Faltan botatzen zaittugu. ETXEKUAK



Osoko zuzenketa bi eta 11 partzial

Bilduk abstentziñuaren bi-dia hartu eban EAJ-ren osoko zuzenketari botua emoteko orduan, bestiak beste arrazoa emoten detselako PSE-k hartutako konpromisua albo batera laga eta emondako hitza ez dabelako bete esaten dabenian.

Bilduko Igor Aldalurrek hola justifikau eban berak ordezkatzan daben taldiak aurkeztutako osoko zuzenketa: "Azpimarratzekua da 2012ko aurrekontuen jarraipena direla eta hori oso kezagarria da iazko urtia zelan jua dan ikusitta: Eibarren 2.200 langabetu baiño gehiago dagoz, enpresak ixten dihardute, bihargin publikuak eskubidiak galtzen dihardue...".

Zuzenketa partziala pasau baiño lehen, IMESAko aurrekontuari erreferentzia egin zetsan: "Aurretik zulo txiki zekala eta, oin zulu haunditia da zuen asma? 325.000 eurotik gorako gastua? Zer egituko? 2012xan ez dozue garaje bakar bat saltzia lortu eta aurten 12 saltzia espero dozue".



Udaleko bihargifetako batzuk plenora jua ziran euren soldatak pagatzia eskatzeko. SILBIA HERNANDEZ

Aurrekontua aurrera etartzia lortu arren, babes faltia be leporatu zetsen PSE-EE alderdikueri: "Ideien iturrira agortu jatzue edo ideia hórrek aurrera zelan etara ez dakizue. PPrekin gehiengo numerikua daukazue, baiña eibartarrek zeozer gehiago eskatzen de-



tse udal gobernuari: gaixen gaineko adostasunak lortzeko gaitasuna. Soraluzen aurrekontua aho batez onartu ditue eta Elgoibarren EAJ-k Bilduren eta PSE-ren babes lortu da. Irunen be alderdi guztien ekarpenak sartu dira au-

rrekontuan... eta Eibarren 11 bozka xumerekin aurrera egin-go dozue".

Euskeriaren sustapena

Zuzenketa partzialen artian, funtzionarioen aldeko sententzia gogora ekarrirta ekin jakon pagatzeko sententzia Udaleko bihargin guztiendako baliagarria ez zalakuan atzera bota eben. Beste zuzenketak, oro har, bizitza kalidadia hobetze aldera egindakuak ziran (umiendako parke estalixa, tupper berrerabilgarrixak, ortu ludikuak...) baiña kasu ia guztietan atzera botatzen jua ziran banan banan, bakarrik Bildukuen aldeko botuak jasota.

Aittagarria da bosgarren zuzenketan euskeriaren inguruan sortutako desadostasuna: Bilduk emondako datuen arabera, gaur egunian 173.000 euro erabiltzen dira euskeria sustatzeko, "aurrekontu osuaren %0'6" eta 100.000 euro gehiago erabiltzia proposatu eben. Alkatari, baiña, porzentajiak gogora ekartzen hastia ez jakon ondo begittandu eta, gainera, berak beste zenbaki batzuk zittuala erantzun zetsan. Toyosen berbetan euskeriaren "sustapenerako millioi bat euro erabiltzen dira". Edozelan be, atzetik botatako zuzenketa guztiekin egindako lez, hauxe be atzera bota zan PSE, PP eta EAJ-ren babes barik.

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

merkalitatea

943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK

ITZULTZEN DITUGU,

euskaratik gaztelarara,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

f

Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

Bulegoa: Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi

El primer grupo funerario de Euskadi

- Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·

RD 1561/2007

REDAU VERITAS

Certificación

Fu. Teatros y Crematorios

Gaixotasun zeliakoa

Haurtzaroko gaixotasuna zelakoan, azken urteotan helduetan gero eta gehiago zabaltzen ari den gaitza da. Bizitzako edozein momentutan ager daiteke. Helduetan, ebakuntza, birus infekzio, haundunaldi edo estres denboraldi baten ostean sortu daiteke.

Baina zer da zeliakoa izatea? Autoinmunitatezko gaixotasuna da; hau da, gorputzak bere ehunen aurkakoa. Gaitz horren garapenerako, hiru faktore hauek behar dira: glutenari esposizioa, heste mehearen iragazkortasun handitua eta predisposizio genetikoa.

Glutenak edo antzeko eraginak egiten dituzten proteinak garian, garagarrean, zekalean eta oloan aurki daitezke. Gliadinak (gluteneko osagarrietako bat), inmunitate sisteman eragindako erantzunaren bidez, heste mehea kaltetzen du. Horren ondorioz, elikagaiak (proteinak, gantzak, azukreak, bitaminak, gatz mineralak...) ez dira behar diren moduan xurgatzen eta, ondoren, gaixotasunaren hainbat seinale agertzen dira, lesioen hedapenen arabera: tripako mina, sabelaldeko puztutasuna, beheko kronikoa, anemia, osteoporosia, nekea, giltzadura mina, legarrak, hazkunde atzeratua haurretan...

Baina gaixotasun zeliakoa hain ohikoak ez diren neurologiko seinaleen bidez ere ager daiteke. Kalte larriak saihesteko, oso garrantzitsua da lehenbailehen diagnostikatzea; horretarako, aipatutako sintomez gain, analitika, biopsia edota proba genetikoek laguntzen dute. Emaitzak fidagarri izateko derrigorrezkoa da aurreko lau asteetan glutena dietatik ez kentzea. Komenigarria da gaixoen senitartekoek ere probak egitea, lehen esan dudan bezala, aurretiko joera genetikoa dagoelako. Egun, gaixotasun zeliakoaren aurkako tratamendu bakarra gluten gabeko dieta jarraitzea da: erraza dela ematen du, baina kontuan hartu behar da elikagaiak lantzean glutena erabili daitekeela eta, horrela, gluten gabeko jakiak kontamina daitezke.

Zorionez, dieta orekatua eraman ahal izateko hainbat jaki daude: frutak, barazkiak, artoa, lekaleak, patatak, fruitu lehorrak, esnea, haragia, arraina, oilaskoa, arrautzak... Hori bai, zeliakoen pozerako, glutena dietatik kentzen denean heste mehea 6-24 hilabetetan errekuperatzen da.



Silvia Zuluaga
(CENTRO MÉDICO ÉIBAR
OSASUNDEGIako nutrizionista

ZER DA GRIPEA

Birus batek sortutako gaixotasun infekziosoa da. Oso gaixotasun kutsakorra da eta airearen eta listu tanta txikien bidez zabaltzen da. Gripe kasuak, batez ere, udazkenaren amaieran eta neguaren hasieran agertzen dira.



ZEINTZUK DIRE BERE SINTOMAK

Gaixotasunaren sintoma ohikoena honako hauek dira: sukar altua, buruko eta muskuluetakoa mina, ahulezia eta ondoez orokorra. Batzuetan sudurreko kongestioa, eztarriko mina eta eztula ere agertzen dira.

ZER EGIN BEHAR DUZU

Ohean egon eta ongi hidratatu, ura eta zukuak edanez. **Antitermikoak erabili:** paracetamol edo azido azetilsaliziliko hartu (umeak ezik); alergia edo intolerantziarik baduzu, hartu baino lehen, kontsulta ezazu. Sukar altua edo iraunkorra baduzu, zure anbulategi edo osasun zentrorara dei ezazu; deitu arren, antitermikoak eta bainu epel bat har dezakezu.

ZER EZ DUZU EGIN BEHAR

Antibiotikoak hartu: birusen aurka antibiotikoek ez dute efekturik.
Arropa gehiegi jantzi: horrek sukarra jaitea eragozten du. Ez saiatu sukarra alkohol-igurtzien bidez jaisten.
Ospitaleko larrialdi zerbitzura joan: aurretik zure oheburuko medikuarekin egin kontsulta; beharrezkoa balitz, honek bideratuko zaitu bertara.



ZER DA BERO KOLPEA

Gorputzak kontrolatu ezinik tenperaturak 41°-tik gora egiten duenean gertatzen da. Oso kasu larrietan, berehala tratatu ezean, bero kolpeak heriotza eragin dezake.



Sintomak: ezohizko agresibitatea; larruazal gorria, beroa eta lehorra (ez dago izerdiririk); buruko mina, zorabioa, goragalea, logura eta egarri handia. **Zer arrisku dago bero handia egiten duenean?** Nahasmendua, konbultsioak eta konortea galtzea. Kirolariek, eguzkitan lan egiten duten pertsonak, bularreko haurrek, adinekoek eta urritasuna edo gaixotasun kronikoa duten pertsonak dute bero kolpea izateko arriskurik handiena. **Zer egin pertsona bat bero kolpea izaten ari dela ikusten baduzu?** Ez galdu denborarik eta deitu 112ra laguntza eskatzeko. **Laguntza iristen den bitartean:** eraman leku fresko eta aireztatu batera; konorterik gabe ez badago, eman likidoa, edan dezan; kendu arropa; eta busti urez edo estali maindire bustiz.



Bero handiak eragin kaltegarria du organismoan. Deshidratatzeko, gaixotasun kronikoak larriagotzeko edo bero kolpe bat izateko arriskua dago. **Adi egoteko sintomak:** muskulu karranpak besoetan, hanketan, sabelean...; neke handia: haren seinaleak zorabioa, ahultasuna eta ezohizko insomnia dira. Sintoma horiek agertzen badira: laga bertan behera egiten ari zaren guztia, freskatu eta atseden hartu zenbait orduz, leku fresko batean; eta edan ura eta fruta zukuak, besteak beste. Sintomek iraun edo larriagotuz gero, galdetu medikuari. **Kontuz beroarekin:** ez irten eta ez egin jarduerarik eguzkitan eguneko erdialdeko orduetan (12:00etatik 18:00etara) eta ez egin kirolik edo ahalegin fisiko handia eskatzen duen lanik.

Debabarreneko I. Lanbide Heziketa Azoka **ABIAN**

MARTXOAREN 14-TIK 16-RA ARTE IRAUNGO DU LEHENENGO ALDIZ ANTOLATZEN DEN AZOKA HOREK. Armeria Eskolak hartuko du eta izen-emateak 943 820110 telefono zenbakian edo pymes@debegesa.com helbidera idatzita egin daitezke eta sare sozialetan azokaren inguruko informazio eguneratua jasotzeko aukera izango da (facebook.com/AbianDebabarena eta @AbianAzoka).

Hiru egun horietan, hasi egunean eta zapatuta arte, honako egitarauari jarraituko diote parte-hartzaileek: hilaren 14an, goizez (10.00-14.00), inaugurazio ekitaldiarekin hasiko dira jardur-

nak. Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Debabarreneko Udal ordezkari eta enpresak izango dira bertan eta handik ordu erdira, 10.30etan, "Lanbide Heziketaren eta Enpleguaren arteko harremana" mahainguruak hartuko du lekukoa. Eduardo Zubiaurre (Jaz Zubiaurre), Jesus Astigarraga (Danobat), Julian Hernando (TVA eta ACICAE), Eduardo González (Mendaroko Ospitala) eta Iñigo Pérez (EPC) izango dira parte-hartzaileak. Goiz osoan, Debabarreneko DBHko eta Batxilergoko ikasleekin bisita programatuak egongo dira.

Arratsaldez (16.00-19.00), bestalde, "Zorionez, zure



etorkizuna zure esku dago" tailerra eskainiko du Grupo Bentas-ek; jarraian, 17.00etan Lanbideko Gloria Gonzálezek "Lanbide heziketaren sistema integratua" hitzaldia emango du; eta, amaitzeko, 17.30etan hasita, "Ze irudi ematen ari naiz interneten?" tailerra eskainiko du Mondragón Unibertsitateko Miguel Fernándezek.

Hilaren 15ean, ordutegi berarekin eta bezperarako aipatutako bisita programatuekin batera, 10.00etan (eta gero 12.00etan) "Nola sortu zure enpresa propioa" ekin-tzailetasun tailerra izango

da, Vanesa Hortas Debegesa teknikiariaren eskutik. Baita Grupo Ventas-ek bezperan eskainitako bera ere. Eta 12.00etan "Interneten enplegua bilatzeko tresnak" tailerraren ordua izango da, Mondragón Unibertsitateko Miguel Fernándezek eskutik.

Hilaren 16an, zapatuta, jornada erdiko jarduna izango da: 10.00etan hasi eta 14.00etan amaituko dena. Gurasoentzako coaching saioa izango da bertan: "Seme-alabei beraien etorkizunari buruzko erabakiak hartzen laguntzeko lanabesak", INGRESS-ek inpartitua.

Enpresa-proiektuak Eibarko UNIn

Amaitu den hilabetean Uni Eibar-Ermua IES-eko Administrazioa eta Finantzako Goi Mailako Zikloko 2. mailako ikasleek



euren ikasketa amaierako proiektuen aurkezpena eta defentsa egin dute. Bertan izan dira Vanessa Hortas (Debegesa), Nerea Izagirre (Ermuko Udala), Javier Unamuno (ekintzailetasun dinamizatzailea), Pili Díez (EJE), Javier León (IES Uniko zuzendaria) eta Ruben Pedraza (Ruibal), eta antolaketa lanetan Carmelo Oiarzabal UrratsBat programako dinamizatzaileak jardun du. Proiektuak hilaren 13an (Mundo Dependencia), 15ean (Argona, Autotal eta Zatika), 18an (Gomar



eta Muévete por la Salud) eta 19an (Educanis eta Derkin) aurkeztu ziren, zortzi guztira.



MILAGROS GALVÁN ARAMBARRI

(2013ko otsailaren 22an hil zen)



URAK DAKARRENA URAK DAROA. ZUK EMANDAKOA GUREKIN GERATZEN DA.

Senideen izenean, **ESKERRIK ASKO** hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen **GUZTIOI.**

+ OSASUN GAZTA

Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

miren albistegi sojo
HELVIDE ETA TELEFONO BERRIAK
Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAÑA
HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

FORIBIO ETXEBARRIA, 4 - Esk. Tel: 943 20 18 51

R.P.S. 148/12

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Irribarreak gaztetu egiten gaitu

Inplante eta Hortz-Estetikan adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Inplanteak / Laser Teknologia / PADI

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

Mª Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Inplanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskua
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA


Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

Okulistak



Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

- Miopia ebakuntzak femtosegundoko laserrarekin.
- Katarata ebakuntzak lente multifokalarekin.
- Presbiziaren kirurgia.

Plaza Barria 2. 2º.
Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOAK**
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOAK
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOAK

Maidier
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOAK
ETA OSASUN ZENTROAK

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOAK
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

**MADINA
RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu:
deitu 943-206776 telefono zenbakira



Eski batzordekoen azken irteera

Aurten Klub Deportiboko eski batzordeak antolatutako azken irteera egingo dute martxoaren 9 eta 10eko asteburuan. Ohikoa denez, LHko 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat prestatutako irteera izango da bereziki, eta baita helduentzat ere: Somporten iraupen eskia egingo dute eta Astún-en alpinoa. Helduek 62 euro ordaindu beharko dute (bidaia eta ostatua pentsio erdian) eta umeek 75 euro (bidaia, ostatua, forfait-a eta alokairua). Izena emateko, interesatuek Deporrek bulegoetara jo dezakezue martitzen eta eguenetan, 19.30etatik 20.30etara.



Malloetara azken asteburuan egindako mendi-irteeran 44 lagun izan ziren, hotzari eta elurrari aurre eginez. Klub Deportiboak antolatutako irteera horretan, Balerdi barrenera jo zuten batzuek eta Urreko Haitzatik besteek (nondik joan aukeran izan zu-

Markel Alberdi igerilariak bost urrezko Euskal Herrikoan

Libre erako 50, 100 eta 200 metroko probak irabazteaz gain, tximeletako 50etan eta erreleboetan ere nagusitu zen Urbateko igerilaria Iruñean jokaturako Euskal Herriko txapelketan. Beste urrezko bana eskuratu zuten Ior Urkirik 200 estilotan, Martin Aizpirik 400 libre-tan eta Ander Romarate olinpikoak urritasun fisiko mailako 50 bizkarrekoan. Beste hainbat domina ekarri zituzten Eibarrrera Urbateko igerilariak: Nora Varelak hiru, Aitzol Arrillagak bi eta Ander Izagirrek eta Martin Aizpirik bana. Urkiri eta Izagirre herenegun joan ziren Palma de Mallorcara, han asteburura arte infantil eta junior mailako Espainiako txapelketan parte hartzeko.



Taldeko txikiek, bestalde, kirol zehaztasun liga izan zuten Bergaran. Urbate-Urkotronik-ek 30 igerilari aurkeztu zituen benjamin eta alebin mailetan; denek bikain jarduteaz gain, nesken taldea 4x50 bizkarreko erreleboetan Gipuzkoako onena izan zen.

Narbaiza eta Ruiz pilotariak finalera

Udaberri Torneoeko gazte mailan, Klub Deportiboko Narbaiza eta Ruizek 22-7 irabazi zieten Legazpiko Olariaga eta Rezustari eta, emaitza horrekin, finalerako txartela eskuratu. Do-



mekan, goizeko 11.15-etan hasita, torneo eta maila bereko partidua jokatu da Ipurua kiroldegian: hor Velasco eta Larrauri eibartarrek Lazkaoko bikotea izango dute aurkari.

Sagardotegian amaitu zen mendi-ibilaldia

ten) eta, Amezketara heldu eta gero, Ikaztegiatiko Begiristain sagardotegian amaitu zuten eguna. Bazuk bost bat ordu behar izan bazuten ere ibilbidea betetzeko, izan ziren zazpitik gertu ibili zirenak: sagardotegian berdindu ziren indarrak.



ESTHER MONDRAGON SANCHEZ en

(Valentin Unzeta Larreategi "Corazón"-en alarguna)

1. URTEURRENA (2012-III-3)

Bere aldeko meza ospatuko da hillaren 3an (domekan), 12.00etan hasita, San Andres parrokian.

ZURE FAMILIA



Gipuzkoako duatloi sprint txapelketa jokoan

Eibarko Duatloia XXII. edizioan, Euskal Herriko zirkuitorako laugarren proba puntuagarriarekin batera, Gipuzkoako duatloi sprint txapelketa izango da jokoan. Sprint distantzia jokatuko da (5 km. antxintxiketan, 25 bizikleta gainean eta 2 eta erdi korrika berri) arratsaldeko 16.00etan hasiko den proba eta Untzaga plazan kokatuko dute lasterketaren muina: hor izango dira irteera, helmuga eta boxeak. Oinezko lasterketak herriko kaleetatik igaroko dira, ibilbide berari bi itzuli emanaz bizikleta hartu aurretik eta beste bat behin bizikletatik jaitsita. Bizikletan Legarretik bariantea hartu eta Osintxuraino joango dira, handik bueltan Estaziñotik sartu eta Un-



tzagara heltzeraino. Eibar Triatloi Taldearekin batera, Gipuzkoako eta Euskadiko Federazioek antolatzen dute proba elkarlanean.

35. Udaberri Saria domeka goizean



Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatzen dituen proben egutegiko lehenengoaren ordua heldu da. Horrela, domeka goizean junior nazional mailako Udaberri Saria (XX. Javier Gallastegi memoriala) jokatuko da: 10.30etan Untzagatik abiatuko dira txirrindulariak, Bergararaino joko dute gero, handik Maltzagara etorri eta Ondarrurantz abiatu, bueltan Etxebarritik San Miguel mendatea pasatzeko eta Elgoibartik hona zuzenean etortzeko. Guztira 78 kilometro izango ditu probak eta 12.25ak inguruan amaituko da, bidebarrieta hasieran.

Eibar KE-k 75. urteurrena ikusmiran

Urte bi barru, 2015. urtean Eibar Kirol Elkarteak 75 urte beteko ditu eta, horren harira antolatuko dituztenetako batzuk aurreratzeko asmoz, aurreko barixakuan Alex Aranzabal foball taldeko presidentea, klubeko jokalaririk ohietako batzuk, oraingo taldeko hainbat jokalaririk eta taldearekin zerikusia duten beste hainbat lagunek aurkezpena egin zuten. Ospakizunerako dituzten ideien artean klubari eskainitako museoa, argitalpen bat, 75. urteurrenaren logoa, goiburua, Eibarren hamaikako ideala, eibartarrak munduan zehar eta foball talde ezagunen baten aurkako norgehiagoka aipatu zituzten.



ANDONI ARGOITIA URKIOLA

(2013ko otsailaren 28an hil zen, 48 urterekin)



**Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako iraunen duela
orainak ere geroan.**

ZURE FAMILIA



berriak

ESKUBALOIA

Somos Eibar Eskubaloiak Egia hartuko du bihar Ipurua kiroldegian, 19.00etan hasiko den partiduan. Eibarko taldea 3. postuan dago sailkapenean azken asteburuan Zaragozan 31-23 galdu eta gero. Kadete eta jubenil mailako Tekniker Eibar Eskubaloiak, bestalde, Bidasoa handiko taldeak hartuko dituzte domekan (kade-teek 10.00etan eta jubenilek 11.30etan).



GIMNASIA ERRITMIKOA

Arrasaten zapatuan jokatutako Gipuzkoako B Txapelketa Eskolarrean, Ipuruak hamar gimnastekin hartu zuen parte eta, indibidualetan, Miren Bastida eta Arrate Baroja infantil mailako sailkapenaren buruan kokatu dira.



JONE ARROITAJAUREGI (Galtzagorri)

"Haur literatura onak heldua ez du aspertuko"

Ume eta gazteen artean literatura sustatzeko beharrea diharduen Galtzagorri egiten du lan Jone Arroitajauregi eibartarrak eta aurreko astean Etxepare Instituturako arlo horretako literatur antologia aurkeztu zuen. Hori dela-eta, berarekin izan gara azken sasoiaren egindako behararen nondik-norakoak irakurleoi agertzearen.

- Hamabi idazle aukeratu dituzu guztira. Zaila izan da aukeraztea? Emakumezko eta gizonezkoen arteko parekatzerik bilatu duzu akaso?

Idazle mordoarekin egin dugu topo eta hor bazeuden irizpide batzuk, Etxepare Institutuak gomendutakoak: Euskadi edo Lizardi Sariak irabazitakoak izatea eta halakoak. Produktzioaren kalitateari erreparatu diogu, batez ere. Gehienak narratiba arlokoak badira ere, poesia ere kontuan hartu dugu eta, Enkami Genuarekin, baita antzerkigintza ere. Generoen artekoari, bestalde, ez diogu garrantzirik eman: hamabitik hiru dira emakumezkoak. Gaur egun gehiago ere izan zitezkeen, baina egindako ibilbidea izan dugu kontuan.

- Lan asko eskatu dizu antologia egiteak? Denbora luzez?

Hala izan da. 1990etik aurrerako testuak aztertu ditugu, egungo ikuspegitik lantzeko orduan. Etxepare gero antologia hori azoketara-eta eramateko asmoa du eta hori kontuan hartu behar genuen. Badira, gainera, proliferatzen diren idazleak; hau da, 30-35 lanetatik gora idatzi dutenak. Sormenezko lanei eman diegu lehentasuna, egokitzapenak eta itzulpenak ere asko baitira.

- Produkzio mailan indartsu dagoen sektoretzat jo zenuen haur eta gazte literaturarena aurkezpenean. Jendeak errekonozitzen du lan hori? Bigarren mailakotzat ez da jotzen askotan?

Gero eta gehiago errekonozitzen da. Askok haur literaturatik egin du jauzi helduengana: Landa, Igerabide edo Lertxundi ez dira adibide makalak. Diozun sentazio hori gero eta gutxiago nabaritzen da. Haur literatura onak heldua ez du aspertuko.

- Berritasun asko izan dituen arloa dela esan dezakegu?

Gero eta gehiago eskaintzen dira aukera berriak. Album ilustratua dago modan azken aldian, batez ere beste kulturetatik datorrena. Haur eta gazte literatura egiten dutenak lan zaila izaten dute aurrean, depurazio lana: dena sartu beharrea, esentzia bilatzeko abildadea behar dute izan.

- Galtzagorri zertan zabiltzate ahalegin berezia egiten?

"Bularretik Mintzora" kanpainan buru-belarri sartuta gaude, 0-6 urtekoen artean irakurzaletasuna sustatzeko ahaleginean. 14 herritan zabaldu dugu proiektua eta 5.000 haur inplikatu.



Miru aintzirako sorgina, bere jarraitzaileekin. LEIRE ITURBE

Ipuin kontalaria Gurasoak Berbetan-ekoentzat

Joan den domekan *Miru, aintzirako sorgina* izeneko ipuin-kontaketa berezia antolatu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Gurasoak Berbetan egitasmoko kideentzat. Mintzapraktika saioetan diharduten guraso eta horien seme-alabek zoragarri pasa zuten Sointek Antzerki Taldeko kideen ipuinak entzuten.

Gurasoak Berbetan euskara praktikatu nahi duten gurasoei zuzendutako programa da. Guraso euskaldunak euskaldun berriekin elkartzen dira astean behin, euskaraz berba egiteko. Izena eman nahi duenak ...eta kitto!-ra deitu dezake (943200918).



Etxegoien AEK-ko ikasleekin

Otsailaren 21ean Fermin Etxegoien idazle oñatiarra Eibarko Unibertsitate Laboralean egon zen AEK-ko ikasleekin berbetan. Irakaskuntzan dihardutenentzat euskara maila hobetzeko Iraleren R-300 ikastaroan dihardutenek Etxegoien "Autokarabana", 2010eko Euskadi Literatura saria irabazi zuen eleberria irakurri dute eta horretaz berba egiteko aukera izan zuten. Amaieran liburu batzuk sinatu zituen eta talde-argazkia aterata solasaldia amaitu zuten.

Aimar vs Maddi, bertsoan

Hankamotzak bertso eskolak eta Zazpi tabernak antolatuta aurreko barixakuan bertso desafioan jardun zuten Aimar Karrika eta Aimar Goenaga bertsolariak, Maddi Gallastegi eta Maddi Sarasua parean ziztuztela. Desafioak erakarritako publikoak ederto pasatu zuen lau gazteek Ion Martinez gai-jartzaileak esandakoei jarraituta botatako bertsoak entzunda.



Korrika Kulturala

Bihar zapaturako eskualdeko historia ezagutzeko mendi irteera antolatu dute Korrika Kulturalaren barruan, Eibarko Klub Deportiboko mendi taldeak lagunduta: 09.08etan Ardantzako tren geltokian elkartuko dira johan nahi dutenek, Deba-Mutriku-Deba ibilbide gidatua egiteko: "Garbiñe Aizpurua AEK-ko irakasle ohiak, Debako Casa Campori buruzko azalpenak emango ditu eta Mutrikun Fosilen museoa bisitatuko dugu. Kalbarixon mokadua eginda, Mutrikutik etxerako buelta autobusez bakoitzak nahiago duenean egiteko aukera izango da".

Datozen egunotan ere beste hainbat jarduera antolatu dira Korrika Kulturalaren barruan: datorren asteko egunean 19.00etan Kuba eta Venezuelari buruzko hitzaldia emango dute Portalean Salvador González eta Lázaro Oramas Euskadi-Kuba elkarteak, ...eta kitto! Euskara Elkartearen laguntzarekin. Hilaren 10ean, Antzerki Jardu-



Mutrikun fosilen museoa bisitatuko dute.

naldien barruan "Lingua Nabajorum" antzezlan eskainiko da. Hilaren 14an tabernako bertso saioa hartuko du Kultu tabernak Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea bertso-lariekin. Hilaren 16an, berriz, bertso-bazkaria egingo da Arrate Kultur Elkartearen. Korrika Txikia martxoaren 20an egingo da Eibarren, 15.00ak aldera eta nagusia egun berean, 18.00ak aldera.

Udaberriko ikastaroak prest UEUn

Atzo eman zuten ezagutzera Udako Euskal Unibertsitatean udaberriko ikastaroen eskaintza. Eibarren, Markeskua jauregian honako hauek emango dituzte: "GeoGebra aurreratua: kalkulu-orria, script gidoiak eta CAS kalkulagailua" (on line), "Argazkigintza dokumentala", "Inorekin eta ezerekin mingostu gabe bizi. Zure bizitza aberasteko gakoak (II. moduloa)", "Antzerkilaritza, umorez bizitzeko bide bat", "Egoera kritikoei aurre egiteko baliabideak", "Moodle 2.3-ren erabilera aurreratua" (on line), "Geografia-Informazioarako Sistemak (GIS): II. moduloa" (on line), "HTML5: estandarra egungo webera egoki-



Ane Sarasua eta Mari Karmen Menika atzoko aurkezpenean.

tzan", "Neuromuskulueskeletikoen proba diagnostikoak" eta "Elikadura burujabetza eta agroekologia". Iruñean, "Ondare kultural ez-materiala: identitatea eta imaginario kolektiboa ezagutu" emango dute. Eta on line ikastaroa doan eta irekia (MOOC) ere antolatu dute, Android programazioaren hastapenak ikasi nahi dutentzat.

Bestalde, Udako Euskal Unibertsitatearen liburuak eskaintza berezia dute egunotan: martxoaren 7ra bitartean UEUn denda liburu bat erosten duen bakoitzari argitalpen bat oparituko diote. Izen-ematea zabalik dago www.ueu.org webgunean.


laburrak

GERONIMO STILTON

Elisabetta Dami, Geronimo Stilton sagu ezagunari bizia ematen dion idazlea El Corte Inglés-en egongo da bihar zapatua, 17.30etatik 19.30etara bere liburuak sinatzen, liburudenda aldameneko atean.

ISASTIREN ERAKUSKETA

Gaur hasi eta hilaren 15era arte Xabier Isastiren akuarela, pirograbatu eta egur-tailu erakusketa egongo da ikusgai Untzaga jubilatutik. Astegunetan 19.15etatik 21.15etara egongo da zabalik eta zapatu eta domeketan 12.00etatik 14.00etara.



ARGAZKI ERAKUSKETAK

Martxoa osoan hiru argazki erakusketa izango dira ikusgai beste horrenbeste tabernatan: Juan Antonio Palaciosen argazkiak Portalea tabernan ipini dituzte, Juan Ignacio Aizpuruarenak El Ambigü tabernan eta FAFIBA Balear Uharteetako argazkilari elkartearen federazioaren argazkiak, berriz, Klub Deportiboan.



● **tartak**

● **enkarguak**

etxera

Bidebarrieta, 28

☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik osasun zentru eta etxetan egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

● KOROAK ● ESKELAK ● HILARRIAK ● AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 fax: 943 202564

Euskal udalekuetarako izen-ematea

Udan ere euskaraz bizi nahi duenak horretarako aukera ezin hobeia izango du Euskal Udalekuetan. Arduradunen berbetan, "40 urte baino gehiago pasa dira euskara hutsezko udalekuak antolatzen hasi ginenetik, eta gaur egun ere hasiera hartako asmo eta ilusio berberak ditugu Abaigar, Goñi eta Bernedoko Euskal Udalekuetan gabiltzan hezitzaileok, lan boluntarioa egi-



nez: Euskal Herri osotik gure artera datozen ume eta gazteei udan ere euskaraz bizitzeko eta gozatzeko aukera eskaintzea".

Izen-emateko epea martxoaren 4an zabalduko dute eta horretarako www.euskaludalekuak.org helbidera jo eta bertan dagoen fitxa bete beharko da. Bestelako argibideak ere bertan eskuratu daitezke.



Mursegori eskainitako "Invisible" filma


Victor Iriarte zinemagileak (Bilbo, 1976) "Invisible", Mursegoren (Maite Arroitauregi eibartarraren) musikari eskainitako filma aurkeztu zuen Iruñean aurreko astean, Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Ikuspuntu jaialdian. Egilearen berbetan "banpirorik gabeko banpiro filma" da, "autarik gabeko road movie bat, maitasun film bat eta musikal bat, baina batez ere Mursegoren musikari buruzko film bat da. Diskoa entzutean, ikusi ezin diren estudioko unerik intimoenak erakusten dituen lana".

Ana Riañoren errealitate fikzionatua

Gaur arratsaldean inauguratuko dute Portalean Ana Riañoren (Bilbo, 1985) "De realidades y ficciones" erakusketa. Hilaren 24ra arte ikusgai egongo den erakusketan margolari bilbotarrak 2011z geroztik jorratzen diharduen proiektuaren emaitza gozatzeko aukera izango da: zinematik ateratako eszenak birsortu eta bere inguruko pertsonaiekin nahasten ditu, zuria eta beltza zein bi eta bako proportzioa erabiliz.



Antzerki Jardunaldiak



Martxoak 1
barixakua
20.30
Coliseoan

"Verás que todo es mentira" Godoy

Maiteok, esan gezurrak, oso ona baita osasunarentzat, batipat burukoarentzat. Hori diosku Godoyk lan honetan. Bizitza errealitatea eta fikzioaren artean garatutako berriketaldian, irudimenak, asmatzeak, fikzioak eta fantasiak oinarriko eginkizuna jokatzeko dute.



Martxoak 4 eta 5
astelehena/martizena
20.30
Unibertsitatean

"La lengua madre" P.A. Triana

Juan Jose Millásek hizkuntzan zehar prestatutako bidaia honetan, Juan Diego barre eta negarrarazi egiten digun pertsonaia hunkigarria eta samurra da; etxera eramatea nahiko genukeen aingeru guardakoa, bere argitasunarekin arriskuengandik urrundu diezagukeena.



Martxoak 6
eguztana
20.30
Coliseoan

"Antígona Oriental" Goethe-Institut

ANAHIT AHARONIAN, AMÉRICA GARCÍA, ANA DEMARCO, ANA M^o BEREAU
Tragedia klasikoaren eta testigantza antzerkiaren ezaugarriekin. Sofoklesek landutako mitoa egungo Uruguaiako gizartearen gatazketako batekin bildu eta hurbiltzen zaigu. Guzti hori elkarriketa posible guztiak zalantzan jartzen dituen estetika zirikatzaile baten ikuspuntutik.



"The deep blue sea"

Zuzendaria: TERENCE DAVIES
RACHEL WEISZ, TOM HIDDLESTON, B. JEFFORD

Filmak proposatutako pasio triangeluak, protagonistak sumatzen dute ez dutela bigarren aukerarik izango, pasio horiek bizi ondoren desagertuko baitira. Maitasunaren burugabekeria espazio itogarri batean.

Martxoak 7, eguna
17.30/21.00 / Unibertsitatean

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, PABLO, haraiñegun lau urte egin zenduazzen-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IRENE, atzo zortzi urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, AMETZ, txapeldun, domekan dagoeneko hiru urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, BEÑAT, astelehenian bost urte egingo dozuzelako. Patxo haundi bat amama Amaia eta famelixaren partez.



Eguaztenian urtebete egin zeban etxeko sorgintxuak. Zorionak, ODILE! Famelixaren eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, ALAIN, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IKER, atzo 11 urte bete zenduazzen-eta. Aitta, ama eta Enekoren partez.



Zorionak, AINARA, honezkero bederatzirte bete dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, JOKIN, atzo hamar urte egin zenduazelako. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ENARA, bixar sei urte beteko dozuz-eta. Ondo ospatu. Patxo bat Eneko eta Anen partez.



Zorionak, UNAI, martitzenian lau urte bete zenduazzen-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, LEIRE TREVIÑO, bixar bederatzirte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, GORKA Bordas Montaña, martitzenian 8 urte egingo dozuzelako. Gurasuak, ahiztia Amaia, lehengusifia Ane eta famelixia.



Zorionak, EKI Agirre Santin, gaur lau urte betetzen dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, UNAITXO, astelehenian hiru urte egin zenduazzen-eta. Muxu haundi-haundi bat gurasuen partez.



Ongi etorri, IKER, otsailaren 26xan gure artera etorri ziñan-eta. Ama, aitta eta famelixaren partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

1ean: 22.30
2an: 19.15, 22.30
3an: 20.00
4an: 20.30

"La noche más oscura"

Zuzendaria: Kathryn Bigelow



(2 ARETOAN)

1ean: 22.30
2an: 19.45, 22.30
3an: 20.00
4an: 20.30

"Hitchcock"

Zuzendaria: Sacha Gervasi



(ANTZOKIAN)

1ean: 22.30
2an: 19.45, 22.30
3an: 20.00
4an: 20.30

"La trama (Broken City)"

Zuzendaria: Allen Hughes



BARIXAKUA 1

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Verás que todo es mentira" (Godoy). Coliseoan.

ZAPATUA 2

MENDI IBILALDIA

09.08. Mendi irteera Deba-Mutriku-Deba: "Eskualdeko historia ezagutzen". Ardantzan trenea hartuko dute, Debara joateko (bueltarako Mutriku autobusa hartuko da). Deporrek antolatuta, Korrika Kulturalaren barruan.

TAILERRA

10.30/13.00 eta 16.00/18.00. Argazkilaritza-tailerra, Luis Pontijas Conderen eskutik. Portalean.

DUATLOIA

16.00. XXII. Eibarko Duatloia. Gipuzkoako Duatloi Sprint Txapelketa. Untzagatik irrenda.

GERONIMO STILTON

17.30. Geronimo Stilton bere liburuak sinatzen egongo da El Corte Inglés-eko sarreran.

DOMEKA 3

TXIRRINDULARITZA

10.30. XXXV. Udaberri Saria. Untzagatik hasita. Amaiera 12.25etan, Bidebarrietako V-aren ondoan.

BATZARRA

11.30. Kantabriako Etxekoen urteko batzarra. Elkartearen egoitzan (Jardiñeta, 9).

ASTELEHENA 4

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

IKASTEN

16.00. Sendabelarren foroa: "Korradu-belarra". Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "La lengua madre" (P.A. Triana). Hezkuntza Esparruan.

MARTITZENA 5

IKASTEN

10.00. "Periodo clásico" hitzaldia, Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

IDAZLEAREKIN BERBETAN

19.00. Irakurketa kluba: "Eulien Bazka", Hasier Etxeberriarekin. Liburutegian.

HITZALDIA

19.00. "La voz de las mujeres del Sur", Irantzu Varelaren eskutik. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "La lengua madre" (P.A. Triana). Hezkuntza Esparruan.

EGUAZTENA 6

IKASTEN

10.15. Soraluze-Bergara (Antzuola) bidegorria. Autobusaren irteera Ego-Gainetik (10.18etan Bidebarrietatik).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Antigona Oriental" (Goethe Institut). Coliseoan.

EGUENA 7

IKASTEN

10.00. "La pintura de David Hockney" hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Armeria Eskolan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17.30/21.00. Zinea: "The deep blue sea". Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

18.00. Joskintza tailerra. Portalean.

ODOLA-ATERATZEA

18.30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulategian (T. Etxebarrian).

GURASOAK MARTXAN

18.30. "La importancia de la familia en la adolescencia", Aldatze ikastetxean.

HITZALDIA

19.00. "Kuba eta Venezuela: kontaktzen ez dizutena". Hizlariak: Salvador González eta Lázaro Oramas (Euskadi-Kuba Elkarte). Portalean (areto nagusian).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. San Andres elizako lokaletan.

hildakoak

- Felix Bergara Zurutuza. 82 urte. 2013-II-22.
- Milagros Galván Aranbarri. 92 urte. 2013-II-22.
- Nicolas Ezenarro San Martin. 91 urte. 2013-II-23.
- Alejandro Otaegi Agirretxe. 89 urte. 2013-II-24.
- Damiana Garoña Fernández. 95 urte. 2013-II-25.
- Andoni Argoitia Urkiola. 48 urte. 2013-II-28.

jaiotakoak

- Mayssa Aoulad Sellam. 2013-II-13.
- Oier Becana Iglesias. 2013-II-14.
- Paula Díez Martín. 2013-II-15.
- Unax Andreu Valera. 2013-II-17.
- Endika Miguel Montero. 2013-II-19.
- Aarón Valdés Etxebarria. 2013-II-19.
- Gorka Castrillo Gil. 2013-II-21.
- Beñat Durán Garitaonandia. 2013-II-21.
- Nora García Hernández. 2013-II-21.
- Oier Teresa Martínez. 2013-II-22.
- Ekhi Palma Badiola. 2013-II-22.

HOROSKOPOA

ARIES

Hemendik aurrera bake santua izatea espero bazenuen, jai daukazu. Fumata zuria heldu arte ez zaizu ezer falta!

TAURUS

Ez duzu magiarik egin, baina lortu duzun guztia aurretik egindako ahalegin eta lanaren fruitu da. Bejondeizula!

GEMINI

Bada sasoi gauei bere izenarekin deitzeko. Arazoan inguruan bueltaka ibili beharrean, horiei aurre egin.

CANCER

Gauzak egin baino lehen, ondo pentsatu. Arazoak sortzeko abilezia berezia duzu; hala ere, badakizu barkamena eskatzen.

LEO

Tentazio horiek alde batera laga: gauzak ez dira biolentziarekin konpontzen-eta. Ondorioak pairatu nahi ez badituzu...

VIRGO

Zuk esandakoak lagun bat haserraraziko du. Nahiz eta berarekin ados ez egon, berba egiten saiatu arazoa konpontzeko.

LIBRA

Argi ibili Aries direnekin! Astroek diotenez, talka egingo duzue hurrengo egunetan. Ea nor iritetzen den garaile.

SCORPIUS

Eskarmentu handiko pertsona bazara ere, harritu egingo zaitu gauza batek. Hala ere, asmatuko duzu erantzuten.

SAGITTARIUS

Ur asko edan, elikagai egokiak jan, kirola egin... Teorian nahiko erraza badirudi ere, praktikara eramatea...

CAPRICORNIUS

Agur baino, gero arte esan beharko zenioke. Pena handia emango dizu bera joateak, baina itzuliko zaizu irribarrean.

AQUARIUS

Zorteko zabilta azken aldian; horrela jarraituko duzu egun batzuetan. Deabruarekin egin al duzu paktua?

PISCIS

Arropa gehiago eramango bazenu askoz hobeto. Makal ibiliko bazara, gaixotzeko arriskuarekin. Hobe duzu zaintzea.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Martxoaren 15era arte**
XABIER ISASTI. Akuarela, pirograbatu eta egur-tailu erakusketa.
Untzaga Jubilatatu Etxean.
- ✓ **Martxoaren 24ra arte**
ANA RIAÑO. "De realidades y ficciones".
Portalean.
- ✓ **Martxoaren 31ra arte**
JUAN ANTONIO PALACIOS. Argazkiak.
Portalea tabernan.
JUAN IGNACIO AIZPURUA. Argazkiak.
El Ambigú tabernan.
FAFIBA. Balear Uharteetako argazkilari elkartearen federaziokoaren argazkiak.
Klub Deportiboan.

lehiaketak

- ✓ **Martxoaren 12ra arte**
XVI. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETA. Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen (arratekultu@gmail.com edo 943-202299).
- ✓ **Martxoaren 28ra arte**
PORTADA LEHIAKETA. Gaia: XXX. Dia Das Letras Galegas Casa C. de Galicia "As Burgas", Roberto Vidal Bolañoren omenez. Saria: 100 euro. Lanak aurkeztea eta informazioa: casaasburgas@euskaltel.net edo 943-206737

farmaziak

- ✓ **barixakua 1**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **zapatua 2**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **domeka 3**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **astelehena 4**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **martitzena 5**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguztena 6**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguna 7**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **barixakua 8**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1		9			2	3
			3	8		
		8	7	9	4	
	1		9	2		6
5						8
	4		8	5		2
		1	5	6	8	
			4	7		
7	6				9	5

SUDOKUA

4	5	8	9	3	7	2	1	6
7	3	9	6	1	2	5	4	8
6	2	1	4	5	8	3	7	9
9	6	4	8	2	1	7	5	3
2	1	7	5	6	3	8	9	4
5	8	3	7	4	9	6	2	1
1	7	5	3	8	4	9	6	2
3	9	2	1	7	6	4	8	5
8	4	6	2	9	5	1	3	7

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisia salgai J.A. Mogel kalean. 3 logela, balkoi-egongela eta sukaldia. Ganbara handia. Dena kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 681-223138.

– Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m². Tel. 637-321970 eta 635-728510.

– Aldapa barik bizitzeko aukera ezinhobea. Pisia salgai Fermin Calbetonen. Garaje-trasteroa aukeran. Tel. 646-680445.

– Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 2 logela eta garajea trasteroarekin. Tel. 660-736526.

1.2. Errentan

– Pisia eguzkitsua eta zabala alogagai Eibarren, bariantetik gertu. 3 logela, 2 bainu, sukalde-jangela, egongela eta terraza handia. Sartzeko moduan. Bista zoragarriak. Tel. 645-728317.

– Logela alogagai konpartitutako pisuan. Amañako dorreetan. Tel. 650-916914.

– Estreinatzeko pisua alogagai Bidebarrieta kalean. Guztiz berriztuta eta jantzita. 2 logela eta egongela handia. Tel. 652-764566.

– Eibarko bikote gazteak pisua hartuko luke errentan Eibarren. Tel. 619-935095.

– Pisia hartuko nuke alogairuan Eibarko erdialdean. Tel. 618-354218.

– Buhardilla alogagai Ubitxan. Igogailuarekin. Atonduta eta bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 620-611718.

– Bikoteak pisua behar du alogairuan. Tel. 688-867226.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Aparkatze plaza alogagai Txomon. Tel. 658-710898.

– Lokala alogagai Otaola Etorbidean (1. solairua). 25 m². Komun berria. Baita koadrilentzat ere. Tel. 681-303507.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.

Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 625-895460. Carmen Maria.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-835824. Oneida.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-012834.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arratsalde eta asteburuetan. Tel. 638-824278.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 632-337083.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 632-054894.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 652-352419.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxean laguntzeko: plantxa egin, ... Tel. 661-075520.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197219.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 653-473375.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, soziedade edo pegorak garbitzeko, etabar. Orduka eta asteburuetan. Tel. 631-004374.

– Emakumea eskaintzen da goizez eta asteburuetan lan egiteko. Laguntzaile tituluarekin. Tel. 616-607121 eta 943-207183.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.

– Neska euskalduna eskaintzen da lanerako. Ikasketak: integrazio soziala eta erizaintza laguntzailea. Tel. 646-644125.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Esperientzia. Tel. 618-444081.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdur/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 625-814727.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-720298.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-259376.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan, sukaldari-laguntzaile eta nagusiak zaintzeko. Tel. 647-898016.

– Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 943-127018.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 636-362251.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 669-311385.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Magisteritzan diplomatu atzerriko hizkuntzan. Tel. 664-558932.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 608-376387.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 600-855686.

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko eta beste edozein lanetarako. Tel. 652-579445.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 618-354218.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako: zainketa, garbiketa, sukaldian lagundu. Tel. 698-567680.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 680-526228.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 943-531378 eta 690-925929.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 608-886701.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 690-064225.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 627-652870.

– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 639-611454.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero jarduteko. Tel. 638-560617.

4.2. Langile bila

– Kamarera euskalduna eta sukaldaria behar dira Eibarko jatetxe batean. Curriculum-a eta argazkia bidali Eibarko 46 posta-kutxatilara.

– Kamareroak behar dira Eibarko taberna batean. Euskaraz jakitea ezinbestekoa. Tel. 697-245186.

– Martxa betean dagoen negozioaren %50 salgai. Jornada osoko lana izateko aukera. Tel. 653-021169.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Ingeniaritza Industrialaren egiten diharduen ikasleak karrera bera egin duen irakaslea behar du klase partikularrik hartzeko. Tel. 639-423673.

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo, Diplomatura eta Lizentziaturako Matematikak, Estatistika eta Kontabilitatea ematen dira. Tel. 685-739709.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Mugikortasun-garabia salgai. Tel. 658-710829.

– Bigarren eskuko Miele hozkailua eta Aspes garbigailua, eta Fagor ontzi-garbigailu berria salgai. 399 eurotan hirurak. Tel. 625-700365.

– Pegorarako eskilarak salbatzeko aparatua salgai. Prezioa adosteko. Tel. 943-200358.

6.2. Eman

– Eibar Sahara Elkarteak mahaiak eta apalategiak behar ditu. Tel. 665-704137.



CAMBRIDGE ENGLISH

Language Assessment

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

AZTERKETAK ETA DATAK:

STARTERS	(azterketa osoa)	LARUNBATA	Ekainak 1
MOVERS	(azterketa osoa)	LARUNBATA	Ekainak 1
FLYERS	(azterketa osoa)	LARUNBATA	Ekainak 1
K.E.T. (For Schools)	(Papers 1,2,3)	LARUNBATA	Ekainak 1
	(Speaking)	Maiatzaren 24tik	Ekainaren 3ra
P.E.T. (For Schools)	(Papers 1,2,3)	LARUNBATA	Ekainak 1
	(Speaking)	Maiatzaren 24tik	Ekainaren 3ra
F.C.E. (For Schools)	(Papers 1,2,3,4)	LARUNBATA	Ekainak 15
	(Speaking)	Maiatzaren 31tik	Ekainaren 16ra
P.E.T.	(Papers 1,2,3)	OSTEGUNA	Ekainak 6
	(Speaking)	Maiatzaren 31tik	Ekainaren 10era
F.C.E.	(Papers 1,2,3,4)	LARUNBATA	Ekainak 8
	(Speaking)	Maiatzaren 24tik	Ekainaren 16ra
C.A.E.	(Papers 1,2,3,4)	ASTEAZKENA	Ekainak 12
	(Speaking)	Maiatzaren 24tik	Ekainaren 16ra
C.P.E.	(Papers 1,2,3,4)	OSTEGUNA	Ekainak 13
	(Speaking)	Maiatzaren 24tik	Ekainaren 16ra

EKAINEKO DEIALDIA

AZTERKETAK EIBARREN eta DURANGON

MATRIKULAK: Martxoaren 4tik 20ra

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK:

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83
	Mondragon Lingua	943 71 20 55
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53
EIBAR:	Anglo-American	943 20 64 57
	Link Idiomas	943 20 39 59
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44
OÑATI:	Mondragon Lingua	943 71 60 00
ONDARROA:	Howdy	96 683 23 79
DEBA:	Akabi	943 19 16 79
	North Street English	943 19 25 00
DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
MARKINA:	Chatterbox	94 616 96 39
ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58

...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelarrera,
gaztelarik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.




elkartea@etakitto.com



EPOCA-GORO

San Juan, 5 - 943 700 216 - www.epocasukaldeak.com
ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA

BERRITU ZURE ETXEA ILUSIOZ
6UK LAGUNDUKO DIZUGU



RPS 04/02
IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo
Ainhoa Zulueta
Susana Sierra
Maitane G. Iñiguez
DOKTOREAK

Invisalign ortodontzia ikusezina



Ortodontzia estetikoa eta ikusezina

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 08.00-22.00h / Larunbatetan: 10.00-14.00h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com